

# Prensa oharra

## Nota de prensa



## "Aitzakiarik ez", azaroaren 25eko kanpainaren leloa, indarkeria matxistaren aurkako eguna

*Usandizaga Institutuko Publizitate Grafikako Goi Mailako Heziketa Zikloko 2. mailako ikasleek diseinatu dute kanpaina hau*

Donostiako Udaleko Berdintasun zinegotzigoak astearte honetan aurkeztu du azaroaren 25erako kanpaina berria, indarkeria matxistaren aurkako eguna. Aurten ere, Usandizaga Institutuko "Publizitate Grafikako Goi Mailako Heziketa Zikloko" 2. mailako ikasleek egin dute kanpainaren diseinua.

"Aitzakiarik ez. No a las excusas" leloa aukeratu dute A25 kanpaina honetarako. "Mezu garbia duen esaldi bat, azpimarratzekoa dena: jarrera matxista bat bera ere ezin da justifikatu. Ezin da indarkeria onartu, naturalizatu edo erlatibizatu ", adierazi du Iñigo Garcia Gazteria zinegotziak.

"Indarkeria matxistak aldaera asko ditu, gure bizitzako eremu askotan gertatzen da, eta egiteko moduak anitzak dira. Horregatik, azaroaren 25eko hau baliatu behar dugu modu horiek guztiak ikusarazteko eta guztion artean borrokatzeko. Hala ere, emakumeenganako diskriminazioarekin eta indarkeria gaitz honekin amaitzeko borroka urteko 365 egunetan egin behar da ", gaineratu du.

Errealitate triste horren aurkako borrokan laguntzeko, Udalak berdintasun-planak eta indarkeria matxisten aurkako planak, prestakuntza-planak, protokoloak, jardunaldiak, eztabaida-taldeak, emakumeen etxeak, ahalduntze-eskolak eta sentsibilizazio-kanpainak jarri ditu abian, astearte honetan aurkeztu den bezala.

"Matxismoa betiketzen duten justifikaziorik gabeko sistema bat berrabiarazi eta libre bizi ahal izateko, has gaitezen barkaezina denari aitzakiarik ez jartzen: #aitzakiarikez", azaldu dute Usandizagaren ikasleek, kanpaina honen diseinuaz arduratu direnek. Bai irudia, bai ideia, Ane Boyk egin ditu.


"Kanpaina honek agerian uzten du sare sozialetan, kalean, kirolean, familian, lanean, komunikabideetan eta politikan oraindik ere matxismoari garrantzia kendu nahi dioten esaldiak eta jarrerak daudela. Aitzakia horiek arazoak minimizatzeaz gain, normalizatu eta iraunarazi ere egiten dute, eguneroko jarreretatik indarkeria esplizituko ekintzetaraino. 'Umorea baino ez da', 'Ez zen serioa' edo 'Gaizki hartzen duzu' bezalako mezuek hesi bat sortzen dute, berdintasunerantz aurrera egitea eragozten duena", gaineratu dute.

# Prentsa oharra

## Nota de prensa

Kanpaina sare sozialen bidez eta bide publikoko termometroetan zabalduko da. Eta urtero bezala, Dbuseko autobusek puntu morea izango dute linea guztietan.

Era berean, Udalak egun hori agenda politikoan indartu nahi du, ospatzen laguntzen du, elkarte feministek, emakumeen elkarteek eta beste erakunde publiko batzuek antolatutako jardueren berri emanez. Egitaraua Udalaren webgunean dago eskuragarri.



**A25N** INDARKERIA MATXISTEN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA  
DÍA INTERNACIONAL CONTRA LAS VIOLENCIAS MACHISTAS

#aitzakiarikez  
#excusasno

EZ DA HAINBESTERAKO EROTU DAPSIKOLOGOARENGANA  
DENA HANDITZEN DUZU ERA UNA BROMA TENDRA LA REGLA JOAN  
TXANTXA VETE AL PSICÓLOGO EHAGERAS TODO ESTA LOCA  
BESTERIK EZ ZEN NO ES PARA TANTO HILEROKOA IZANGO DU  
NO FUÉ MI INTENCIÓN  
EZ ZEN NIRE ASMOA

AYUNTAMIENTO DE DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN Diseño

EMAKUMEEN AURKAKO  
INDARKERIARI EZ  
NO A LA VIOLENCIA  
CONTRA LAS MUJERES